

DATORRENA

Duela urtebete ez genekien Trapero existitzen zenik ere **IÑAKI SOTO > 3**

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Zer eta nola eztabaidatu? **PELLO OTXANDIANO > 9**

2018ko abuztuaren 11 | XII. urtea • 581. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ARRANTZATZETIK ERRESKATATZERA

ORAIN ARTEAN GETARIAKO ARRANTZONTZIEN FLOTAN ARITUTAKO ONTZI BAT MOLDATZEN ARI DIRA AZKEN ASTEOTAN PASAIAN. AURRERANTZEAN EGITEKO BERRIA IZANGO DU «AITA MARI» IZENEKO ONTZIAK; MEDITERRANEOAN, LIBIAKO KOSTA PAREAN, PERTSONAK ERRESKATATZEA. **> 10** Jon URBE | FOKU



**Ambazada, matxinatuen topaketa
intergalaktiko baterako deia** 04

**Getariatik Mediterraneora,
arrantzatik bizitzak salbatzera** 10

In fraganti: Jon Gama 18

**Ez dira aulki batean eserita zain
egongo** 20

**Gasteizko txosnek herrigintza
saritzen dute** 21

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Duela urtebete ez
genekien Trapero existitzen
zenik ere

08 **Saioa Aginako:** Orakulu bat
Delfosen

09 **Pello Otxandiano:** Zer eta nola
eztabaidatu?

14 **Amaia Ballesteros**

15 **Miren Azkarate:** Aurrera
haurtzaroa!

15 **Antton Izagirre:** Balkoiak eta
banderak

16 **Beñat Gaztelumendi:** Irudikatu

17 **Xabier Izaga:** Ezin gara euren
lekuan jarri, ez baitute lekurik

22 **Olatz Arregi:** #NiEreBai
teknologia alorrean



{ datorrena } **Iñaki Soto**

Duela urtebete ez genekien Trapero existitzen zenik ere

Datorren astean, abuztuaren 17an, Kataluniako atentatu jihadisten lehendabiziko urteurrena beteko da. Atzera begira, urte bakarra pasa izanak sinestezina dirudi. Lehendabiziko unean, gutako gehienok Kataluniako erreferenduma guztiz baldintzatu-ko zuten erasoak izango zirela pentsatu genuen. Egunek aurrera egin ahala, aldiz, bai Madrilek bai Bartzelonak atentatuez eta beren ondorioez egindako kudeaketa ikusita, eragin hori ez ote zen kataluniarren aldekoa izango pentsatzen hasi ginen. Ordura arte, kanpotik ikusita, erreferendumean Poliziak jokatu zuen papera zen zalantza handienetakoa. Nola eramán aurrera erreferendum ez-legal bat Poliziaren babesik gabe? Edo, beste era batera esanda, nola babestu dezake Poliziak erreferendum ez-legal bat?

Orduan, Josep Lluís Trapero ezagutu genuen, mossoen burua. Eta, hein batean bada ere, gutako askorentzat “polizia=txakurra” binomioa leuntzen joan zen. Egia da ordurako Poliziari buruzko gure imajinarioan zenbait aldaketa emanak zirela. Urrutirago joan gabe, Raymond Kendall bera Baionako polizia-etxera joaten ikusita geneukan, ETari babesa

emateaz akusatuta. Beste alde batetik, ezker abertzaleak estrategia politiko-militarra baztertu zuenetik sei urte igarota, ildo antierrepresiboaren balantzerik egin gabe baina bere argi-ilunen oso kontziente, tentsioa zeharo motelduta, indar metaketaren estrategia batean eta bosterea berreskuratzeko apustu sendoarekin, Poliziari buruz egunero kalean konfrontazioa zegoenean bezala pentsatzen jarraitzeak ez dirudi oso logikoa. Hori esanda, ordea, kontakizun politikoan izan zezakeen ondorioengatik eta euskal instituzioez jeltxideek duten ikuspuntu patrimonialistagatik, izenetik hasita eta izanera igarota, Ertzaintzan aldaketa sakonik ez egiteko EAJren erabakiak beste agertoki baten aukerak kamustu ditu.

Iñigo Cabacasen edo torturen auzian izandako jarrera horren adibide. Orain Lakuak kultura polizial hori kudeatzeko arazoak ditu. Edonola ere, hori beste auzi bat da.

Aipatu bezala, duela urtebete Traperoren berri izan genuen. Abuztuak 21ean operazioaren amaiera suposatu zuen Younes Abouyaaqouben exekuzioa eskubideen ikuspuntutik deitoragarria eta eraginkortasun polizialaren aldetik zalantzarik izan arren, erasoaren tamaina eta jatorria ikusita, kataluniar instituzioek bai beren herriari baita munduari ere bidali zioten mezua oso indartsua izan zen. Espainiar agintarien jokabidea, ordea, eskasa eta iluna izan zen. Zerbitzu sekretuek Ripolleko imamarekin zuten harremana argitzeke dago, adibidez.

Zaila da azkenean atentatuok erreferendumean izan zuten eragina zehaztea. Edonola ere, hortik aurrera kata-

Kataluniaren eta Euskal Herriaren arteko alderaketetan denbora politikoen iragankortasuna kontuan hartu beharko da. Zenbait gauza uste baino mantsoago joango dira eta irakinaldiak ere izango dira

luniar aktualitate politikoa lasterragotu egin zen, etenik gabe bizkortu zen, urte amaiera arte. Denbora hirukoiztu bezala egin zen, eta sei hilabete eskas urteen pareko bihurtu dira gure memorian. Orduan ez genuen Trapero ezagutzen, eta dagoeneko askok ez dute gogoan. Politikaren –eta informazioaren– zikloen joera horixe da: gero eta iragankorragoak dira. Jende gehienarentzat gertaerak prozesuak baino interesgarriagoak dira, agian.

Kataluniaren eta Euskal Herriaren artean egiten diren alderaketetan, denbora politikoen joera hori kontuan hartu behar dela uste dut. Zenbaitetan irakinaldiak biziko ditugulako eta zenbait gauza uste baino mantsoago joango direlako. Trapero ez baitzen iaz jaio. •

AMBAZADA, GALAXIA MATXINATUAK KONEKTATZEKO ESTAZIOA

Hartzea Lopez Arana

Argazkietan kanaberaz eginda dirudien etxola luzea, «Herri borrokak uztartu» lemarekin eta auzolanerako eta topaketa «intergalaktiko» baterako deiarekin. Euskal Herriko kale zenbaitetan itsatsi kartelak galdera pizten du: zer ote da hau?

Egunotan eta orotara lau aste iraungo duen egonaldian, hamarnaka euskaldun ari dira bertan lanean, lastozko pareten emokadurak bukatzen eta barneko gelak eratzen. Frantziatik zein Europa osotik etorritako jendea junta-tu zaie, munduko borrokak eta kulturak aterpetuko dituen Ambazada izeneko ekimena denen artean altxatzeko. Britainiako Notre-Dame-des-Landes herriko ZADek, Babestu Beharreko Guneak alegia, pairatu duen udaberri latzaren ondotik, abiatutakoa segitzeko gogoek horretan dirautela erakutsiz.

Frantziar Gobernuak joan den urtarrilaren 17an Notre-Dame-des-Landesko nazioarteko aireportuaren egitasmo korapilatsua bertan behera utzi zuen, berrogei urteko talkari amaiera ofiziala emanez. Erabakia aurkarientzat garaipen historikoa izan zen, nahiz eta euforiak gutxi iraun zuen: galera konpentsatzeko, aireportua egin behar zen lurretan finkatu zen okupazioa deuseztatuko zuela hitzeman zuen Edouard Philippe lehen ministroak, legearen eta eskubidearen izenean; ilegalki paratutako bizitegi eta nekazaritza ekoizpenei irteteko ultimatumak jarri zien. Bide batez eta eskarmentu gisa, Estatuarentzat iraina diren ZAD siglekin famatu bihurtutako oposizioei beste lurralde batzuetan garatzen ez uzteko. Lehen saioa Lorraine eskualdeko Bure herrixkan gauzatu zuten handik hilabete eskasera: hilobi nuklear baten kontra oihanean jarritako kanpamentu finkoa desegin eta hamabost pertsona atxilotuz.

Notre-Dame-des-Landesen kasuan, okupazioen eremua askoz zabalagoa eta azkarragoa izanik (90 gune eta bizitegi autokudeatu eta 300 hektarea ekoizpen inguru), Gobernuak makila ateratzearekin batera negoziazioaren azenarioa astindu zuen, legeztatze gogoa zuten nekazaritza jarduera indibidualak soilik onartuko dituela zehaztuz.

ZADen errotutako esperientzien esentzia bera desagerrarazteko taktika izan zen hura. Tentsio egoeran, iragarpenak eztabaida sutsuak eragin zituen



Egunotan, dozenaka euskaldun ari dira bertan obretan, lastozko pareten emokadurak bukatzen eta barneko gelak eratzen.
Hartzea LOPEZ ARANA

okupazio mugimenduaren eta aireportuaren kontrako elkarleen baitan: kontzesioak bai ala ez, zer galtzeko eta zer irabazteko, Poliziaren etorrera masiboa ari nola aurre egin, norekin aliatu...

Berrogei kolektibok, Ambazadak barne, Administrazioak eskatutako papearak Prefekturara helaraztea erabaki zuten, ezinbestean denbora irabazteko eta aurreikusitako bataila desorekatuan bestelako zirrikituak bilatzeko. Betiere ZADen izaera kolektiboa etorkizunerako ezinbesteko baldintza zela azpimarratuz, jarduera guztien arteko interdependentziari eutsiz eta ekimen guztiak kudeatuko zituen elkarteak eratzeke proposatuz.

Mintzakide izateko muntatu zen delegazioaren eta agintarien arteko bilkuretan ez zen adostasunik suertatu. Okupatzaileek Larzaceko aurrekari juridikoa jarri zuten mahaiaren gainean; prefetak, berriz, dosierrak banaka eta separatuki aztertzea, kolektiboa litzate-

keen guztiari atea itxiz. Lehen ministroak finkatu zuen epea iritsi arte.

Mehatxua ez zen hitzetan geratu. 2.500 polizia mobilizatuta, 300 zauritutik gora, 38 bizitegi hautsita, 14.000 granada inguru jaurtikiak, kartzelatzeak, baratze eta landa zangopilatuak... Asteak iraun zituen borrokak oihartzun handia eduki zuen. «Ez duzue gehiago entzungo Notre-Dame-des-Landesen aipamenik» esan zuen Gerard Collomb Barne ministroak kanporatze operazioaren azken egunean, sei urtez Errepublikatik kanpo egondako zonalde autonomo eta lotsagabea buzetatik betiko ezabatu nahian.

ZAURIAK SENDATU, GERORA SO

Nahiz eta operazio horren aurkako erresistentzia jendetsu, irmo eta koloretsua gertatu, joan diren apirileko eta maiatzeko eraso militar zein administratiboek bulldozer efektua ukan dute ZADen. Poliziaren presentzia nabaria



da oraindik, edozein eraikuntza berri berehala geldiarazten dute, errepideen kontrola berreskuratu dutela argi utziz. Trukean, hamabost dira, momentuz, Administrazioak baimendu dituen lur ekoizpen proiektuak. Beste guztiak menian daude, *à l'étude*, udazkenerako datozen hitzorduen zain.

Bizitako guztiaren ondoren, Wardine baserriko Martine Lucrecentzat beste fase bat astiro ari da martxan jartzen. «Etxolak, esperantzak eta Poliziarik gabeko egoera galdu ditugu, elkarrekin aireportuaren baztertzea irabazi ondoren. Geroztik Estatua hemen errotu diren indar eta elkartrukeak suntsitzen saiatzen ari da, baina gehienak ez gara hemendik lekutu. Eta oraindik ere eredu kapitalistatik kanpo elkarrekin eboluzionatzeko xedez gaude. Aplikatzen zaigun estereotipo bitarretik at (negoziaziora jo dugun erreformistak eta legeztatzerik nahi ez dugun erradikalak) eta barne tirabirez axolagabetu gabe».

Frantziatik eta Europa osotik etorri den jendea juntatu zaie, munduko borrokak eta kulturak aterpetuko dituen Ambazada denen artean altxatzeko. Bretainiako Notre-Dame-des-Landes herriko ZADek pairatu duen udaberri latzaren ondotik, abiatutakoa segitzeko gogoek horretan diraute.

Hartzea LOPEZ ARANA



Uztailaren 7tik 14ra, leiho mediatikoetatik urrun eta giro baketsuagoan, “ZADenvies” izeneko jardunaldiak antolatu zituzten hainbat aktibitate eta animazio proposatuz, kanpoko jendearen parte hartzearekin. Ingurugiroa honda zezaken azpiegitura baten kontrako dinamikaz gain, bizitzeko beste erak arranguren erdian jarraitzen dutela gogoratu zuten ekintzaileek. Notre-Dame-des-Landesko ZADek irudikatzen dituen ikur eta praktika askoren

artean, bertako biztanleen eta kanpotarren arteko loturek bilakatu dute esanguratsu leku hau. Izan nekazari, naturaren defendatzaile, sindikalista, internazionalista, feminista edo libertario, hainbat jende eta esperientziak egin dute topo bertan. Harreman horietatik elkarlan iraunkorrak jalgi dira.

Euskal Herria Zuzenean festibalaren bitartez hasitako kontaktuetatik eta ZADeko kideek Euskal Herrian egindako biretatik, Ambazadaren egitasmoa

Mintzakide izateko osatutako delegazioaren eta agintarien arteko bilkuretan ez zen adostasunik lortu. Okupatzaileek Larzaceko aurrekari juridikoa jarri zuten mahaiaren gainean; prefetak, dosierrak banaka aztertzea

Mehatxua ez zen hitzetan geratu. 2.500 polizia mobilizatuta, 300 zauritutik gora, 38 bizitegi hautsita, 14.000 granada inguru jaurtikiak, kartzelatzeak, baratze eta landa zangopilatuak...

Euskal Herriko eta Frantziako gune autogestionatuen arteko hurbilketa erraztu du Ambazadak, bakoitzaren kulturak nahastuz eta laguntasunak trinkotuz.



Hartzea LOPEZ ARANA

2017ko udaberrian sortu zen. Hasieran euskal kabi antzeko gune bat egitea aipatu zen, gero eta euskal herritar gehiago etortzen baitzen gunea bisitatzera. Ideiak bestelako norabidea hartu zuen ZADeko biztanle eta kolektibo batzuekin era sakonagoan mintzatu ostean: zonaldea zeharkatzen duten guztientzat mesedegarri litzatekeen eraikina altxatzea, ekitaldi mota guztiak gauzatzeko. «Indarrak biltzeko tresna, mugarik gabekoa, elkartasun, konbergentzia eta laguntzan finkatua. Leku funtzional eta atsegina, non etxean bezala eta besteekin bat senti baikintezkeen», lehenengo deialdiaren esanetan.

Mexikoko Chiapaseko herritarrekin elkartasunean ari ziren ekintzaileek “base intergalaktiko” goitizena eman zioten berehala ekimenari, zapatisten esamoldeak bereganatuz.

Zurezko egiturak inguruko basoetan moztu eta zerratu, zimendua osatzeko zutoin elektrikoak errekupeatu, lekuko buztinarekin mila adreilu prestatu, isolatzeko kalamua eta lastoa inguruko nekazariei galdegin... Bi auzolanek dute proiektua lurretik atera. Kokapenaren hautapenak badu bere azalpena: zonaldearen erdian, laborantzarako erabilgarria ez den lursaila da. Gaur egun, egoitza ZADeko taldeek erabiltzen dute gehienbat, bilkura, erakusketa eta bestelako tailerrak antolatzeko.

Gerald Demaik Ambazadaren eraikuntzan aktiboki hartzen du parte, nahiz ZADen bizi ez den. Nantes hiriko aireportuaren kontrako komitean ibili izan da luzaz. «Afinitate, bizimolde edo korrante politiko batean ez bazara sartua, ez da beti erreza ZADeko proiektu batean inplikatzeko, kokatzeko. Ambazadak irekitasuna eta dibertsitatea ditu ardatz, ZADen bizi diren guztientzako espazioa izan nahi du eta, aldi berean, ZAD ezagutu nahi duten guztiona. Frantzian, borroken bateratzea mobilizazio askoren aldarria izanda, xede hau praktikara eraman nahi dugu, militanteen arteko liskarrak gainditu eta joera gregarioak baztertzeke».



Beste gauzen artean, Euskal Herriko eta Frantziako gune autogestionatu batzuen arteko hurbilketa erraztu du Ambazadak, bakoitzaren kulturak nahastuz eta laguntasunak trinkotuz. Zerk batzen ditu frantziar anarkista bat eta euskal independentista bat? Sintonizatzea ez zen ebidentzia.

Zera pentsatzen du gaiari buruz Benji Paul Normandiatik ZADera duela lau urte bizitzera etorritakoak: «Topagune amankomunak ditugu eskas. Proiektu honetan tresnaren balioari eman diogu lehentasuna, helburu teorikoei itzuli gehiegi eman gabe. Elkar ezagutzeko aritzea, jakintzak transmititzea, jarrera inklusiboak lehenestea... eta horrek elur bola eragitea».

«Ehunka izan dira eraikin honen egiterata gerturatu diren herritarrek, eta euskaldunekin kimika polita gertatzen da beti –erantsi du Benji Paulek–. Taldean elkar kudeatzeko duten sena berehala nabari zaie, antolatzeko eta aktibatzekeo ohitura duen komunitate gisa ari dira lanean».

Halaber, joan den martxoan, Bretainiako eta Euskal Herriko kolektibo batzuen arteko elkartzea egin zen herrien egoitza izan nahi duen egitasmoan, auzolan bateratuaren bidez hor ere, frantses Estatuaren pean diren hizkuntzak are gehiago nabarmenduz eta Ambazada Bretainiari gehiago irekiz.

Beste lotura batzuk aurreikusita daude datozen hilabeteetarako, hala nola Aulnay-sous-Bois Pariseko auzo periferikoko herritar talde batekin; baita Europa mailan gorpuzten ari diren etxe okupazio ekimen batekin ere.

ZAD ETA ERREKALEOR


Euskal Herrian, ZADekin parekatu daitekeen eremurik esanguratsuena Gasteizko Errekaleor auzoa da. Pasa den udaberriko kanporatze operazioa indarrean zela bertatik autobusa atera zuten, barruan hamabi eguzki plaka garraiatuz, prefekturak egin argindar mozketari itzulua eman nahian. Bi lurraldeen arteko senidetzea ere gauzatu zuten joan den apiril bukaeran, elkartze hori molde batez markatzeko. Lore Martinez Errekaleoreko bizilagunak

honela laburbiltzen du denborarekin azkartutako adiskidantza: «Gure auzoan bizitzeak hainbat proiektu autogestionatu zein gune aske ezagutzeko aukera eskaini digu. ZAD bertatik bertara ikusteko gogoari ezin eutsiz, 2016ko udan hurbildu ginen Notre-Dame-des-Landesera. Ikaragarria izan zen: horren leku zabalean den-dena kudeatzen zuten beraiek, elikadura, bertoko komunikazioa zein etxebizitzaren eraikuntza edo naturaren ustiaketa bera ere. Hori guztia euren aniztasuna errespetatzen saiatuz eta bertan bizitzeko inongo aurrebaldintzarik bete behar barik. Nire begi euskaldunentzat, akaso zurrune-gientzat, funtziona zezakeela ikustea harrigarria izan zen, benetan. Asko geneukan beraiengandik ikasteko. Hor hasi zen mamitzen Ambazada proiektua».

Eta enbor horretatik, Aman Komunak sarea. «Hango energiez kargaturik eta Euskal Herriko hainbat kide gurutaturik, zergatik ez sortu euskal ekimen indartsu, iraunkor eta eraikitzaile bat? Horra Aman Komunak. Iazko ekainean Errekaleorren egin genuen lehen bilera eta egun trinkotzen darrai, Euskal Herrian zehar auzolanak eginez eta etorkizunean erresistentzia eta eraikuntza dinamikak bultzatzea xede».

Aireportua gelditzearen adibidea harturik, taktika eta pentsamolde desberdinen arteko gehikuntzak indar harrimanean gauzatzen duela aipatzen da sare horretan.

Kontuak kontu, iaz bezala, Ambazadaren abuztu honetako auzolana nazioarteko topaketa batekin uztartuko da, datorren abuztuaren 27tik irailaren 2ra. Oraingoan Alemania, Italia, Danimarka, Kurdistan edo Ingalaterrako adiskideak daude gonbidatuak, «borrokan dauden lurraldeen arteko errealtateak» partekatzeke, karpa eta oihaldendean pean. Giro horretan ditu Ambazadak ateak irekiko, irailaren 1ean, festa batekin. Udazkenetik goiti etor daitezkeen mehatxu eta suntsipen saiakerei begira ahal den eta sendoen izateko, ZADen eta beste galaxietan hazi eta ereingo diren beste landare maxinatuekin bat.



«Hori guztia euren aniztasuna errespetatzen saiatuz eta bertan bizitzeko inongo aurrebaldintzarik bete behar barik. Nire begi euskaldunentzat, akaso zurrune-gientzat, funtziona zezakeela ikustea harrigarria izan zen», onartu du Errekaleorreko Lore Martinezek.
Hartzea LOPEZ ARANA



«Ez duzue gehiago entzungo Notre-Dame-des-Landesen aipamenik» esan zuen Barne ministroak kanporatze operazioaren azken egunean, sei urtez Errepublikatik kanpo egondako zonaldea buruetatik betiko ezabatu nahian

Nahiz eta operazio horren aurkako erresistentzia jendetsu, irmo eta koloretsua gertatu, apirileko eta maiatzeko eraso militar zein administratiboek bulldozer efektua ukan dute ZADen. Poliziaren presentzia nabaria da oraindik ere



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Orakulu bat Delfosen

Oporraldi batean, Apolo-
ren tenplua esplora-
tzen ari nintzela, ha-
rrian zizelkatutako
ondorengo esaldia-
kin topo egin nuen:

zeure burua ezagutu ezazu. Zein za-
ra? Ba al daukazu erantzunik galdera
horrentzat? Bakarra? Anitz? Bat ere
ez? Ez al da munduko galderarik zaile-
na? Ohikoa da bakoitzak, bere burua
aurkezterakoan, berari buruzko hain-
bat datu ematea; esaterako, izena, adi-
na, ogibidea eta jaioterria. Asko jota,
zaletasunen bat gehituko zaio zerren-
dari.

Zaila ez da galdera bakarrik, norbe-
rak bere burua ezagutzea ere zaila da-
eta. Autoezagutza ez da helburu bat,
etengabeko eraldaketan gaudenez,
inoiz ez baitugu geure burua guztiz
ezagutzea lortuko. Hortaz, autoezagu-
tzaren, esperientziaren eta bizipenen
bitartez, ikasi eta hazteko aukera
ematen digun jarioan dagoen proze-
sua dela esan genezake.

**Hala ere, zenbaitetan, ingurua da
prozesua zaila bihurtzen duena. Al-
di oro, besteei erakusten diegun
irudiari buruz kezkatuta bizi gara
eta gehienetan, ezaugarri hutsale-
tan oinarrituta dago.** Hortaz, gure
izatearen mamia ahaztu egiten dugu.
Modu berean, jaiotzen garenetik, bes-
teek ematen diote esanahia egiten eta
esaten dugunari. Maiz, ulerkuntza
hauek okerrak dira, zerikusi handia-
goa baitute eman dituenarekin, jaso
dituenarekin baino. Horrela bada,
norbere burua ezagutzearen proze-
sua, besteen iritzi eta interpretazioe-
tatik distantzia bat hartzarekin batera
hasiko da.

Bestalde, eta aurrekoarekin kontra-
esana iruditu arren, nor garen jakite-
ko, besteak bidaltzen dizkigun me-

zuak kontuan hartzea ere beharrez-
koa da. Gakoa mezu horietaz balia-
tzea da. Horretarako, harremanek su-
posatzen duten hartu-emanen geure
burua entzuteko prest izan beharko
gara, nola sentitzen garen, ze emozio
agertzen diren eta hauek nola kudea-
tzen ditugun erabaki. Hunkitzen gai-
tuenak gure bizitza-historiarekin ze-
rikusia dauka, hau da, besteak ez digu
emozioa jartzen, baizik eta emozioa
da gugandik ateratzen dena. Guk aza-
leratutako emozioari kanporako bi-
dea baimentzen diogu, alegia.

**Autoezagutzaren bidean, garrantzi-
tsua da jakitea zenbait estimulu ja-
kin batzuen aurrean izaten ditugun
erantzunak errepikatzen ote diren.**
Horretarako, lagungarria izango zaigu
pizten diren emozioak eta pentsa-
menduak behatzea, hauek epaitu ga-
be eta hauekin lehiatu gabe. Horren-
bestez, oztopo bihurtu den jarrera ze
egoeratan azaltzen den antzemango
dugu eta automatikoki ditugun hain-

bat ohitura eta jarreraren finkapen
mailaz jabetuko gara. Jarrerak urteen
poderioz eraikitzen joan dira, hots,
txikitatik. Haurtzaroan besteekin ha-
rremanetan jartzeko erabiltzen geni-
tuen estrategiak, orain heldu bezala
erabilgaitzak bilakatu dira. Gaur
egun, haurrak ez garen heinean, gure
emozio eta erabakien agintea hartze-
ko gai gara, gure beharrak guk geuk
asetzeko, beste norbaitek egin dezala
espero gabe.

**Oinarrizkoa da hausnartzea, bene-
tan, gure zerizantetik edota, aldiz,
azalekotasunetik bizi garen.** Agian
besteen aurrean pertsonaia bat eraiki-
tzen ari gara, gure pertsona mespre-
txatuz, eta ez gara egoera honi behar
duen arreta jartzen ari. Autoezagutza-
ren bidea ez da zaila, iraunkorra bai-
zik. Kontzientzia, askatasun eta segur-
tasun maila handiagoa lortzea
ahalbidetzen duena. •

saioaaginako@gmail.com



Autoezagutza besteen iritzi eta interpretazioekiko distantzia bat hartuz hasiko da.

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Zer eta nola eztabaidatu?

Azken asteetan UEUk zein EHUK antolatutako udako ikastaro batzuetan parte hartzeko aukera izan dut, zeintzuek aukera eman didaten hainbat gako politiko eta ideologiko eguneroko zurrunbiloak zailtzen duen eran hausnartzeko. Uste dut aurtengo udako ikastaro hauen gaitegia lagin bat badela egun gurean dagoen produkzio politiko-ideologikoarena, garai bizi bezain nahasian –eta beraz interesgarrian– gauden seinale.

Udako ikastaroetan jasotako guztia ezin prozesatu nenbilela guztiz kontrako iritzia aurkitu dut sare sozialen batean: dinamika instituzionalak irentsi gaituela eta eztabaida ideologikoa baztertu dugula. Zalantza egin dut eta urte politiko honek eztabaida ideologikoari dagokionez eman duena zerrendatzen hasi naiz: epizentroa Katalunian izan duen lurrikara politikoak ekarri duen erabakitzeko eskubidearen kontzeptualizazio berritzailea –Txalapartak argitaratutako Jaume Lopezen liburuan jaso eta EAEko autogobernu ponentzian presente egon dena–; Eusko Ikaskuntzaren 100. urteurreneko kongresuaren bueltan sortzen ari dena –momentuz “Liburu berdea”, “Liburu zuria” izan nahi duenaren lehen urratsa: kontzeptualizazioa eta diagnosi partekatua–; mugimendu feministaren loraldian eza gutu den “Terra de ningú”, independentziari buruzko ikuspegi feministak; LAB sindikatuak bere afiliazioarekin eztabaidagai jarri duen proposamena hezkuntza ereduaren inguruan; “Demokrazia bai” egitasmoaren aurkezpena eta aurrera begirakoan iritzi korronte gisa eratzeko erabakia; Gure Esku Dagok 175.000 lagun mobilizatzeaz batera erabakitzeko bildu dituen arrazoiak; Ernaik prekarietatearen inguruan aurkeztu duen dinamika, eta abar. Asko edo gutxi den ez dakit esaten, baina bada zerbaite inondik ere.

Atzo ezinezkoa zirudiena bihar egitate bihur liteke inoiz baino ezegonkorragoa den azelerazio garai honetan. Ez da komeni tentsioa galtzea halakoetan, hobe eztabaida politiko-ideologikoaren abundantzia eskasia baino. Alabaina, kantitatea bezain inportantea deritzot kalitateari, eta zer eztabaidatzen dugun bezainbat nola eztabaidatzen dugun. Izan ere, badira ekarpen bat egin asmoz baino norbere burua nabar-

mentzeko edota talde gisa autoerreferentziatzeko –talde-identitatean berresteko– planteatzen diren eztabaida-molde batzuk. Kasu horietan, eztabaida gisa planteatzen denak ez du egiazki eztabaida bat izan nahi, aldez aurretik finkatutako posizioak publikizatze saiakera baino.

JOERA EZ OSO SANOAK

Sanotzat ez ditudan beste joera batzuk indartzen sumatu ditut azkenaldian:

1.- Posizioak ezezketasunetik eraikitzea, besteen proposamenekiko erreakzio negatibo gisa. Ikus feminismoaren diskurtsoari nola kontrajarri zaion “klase-feminismoa” deitu dioten hori, adibidez.

2.- Zinismo erasokor moduko bat, areriotzat dituzten horiek era guztietara etiketatzen dituen.

3.- Dialektikari uko egitea, hipotesiak errealtatearekin kontrastatu nahi gabe: azken hamarraldietako mobilizazio maila handiena egon den ikasturtea igerota, berdin esan ahal liteke dinamika instituzionalak itotzen gaituela? Autogobernu ponentzian adostasuna egon ala ez, adostutakoak gauza bat edo beste bat esan, berdin esan ahal liteke independentismoaren aukerak mugatzen dituela?

4.- Antagonismo binarioekiko kerentzia: instituzioak vs herri-mugimendua, konfrontazioa vs egungo *status quo*-an parte hartzea, eta abar.

5.- Hipotesiak frogatzeari uko egitea: alderdiak eta instituzioak artikulazio independentistarako galga direla, Gure Esku Dago dinamika instituzional antzu baten menpeko bihurtu dela eta eragile independentista bat *ad hoc* sortu behar dela horren argi duenak, zergatik ez du hori bera egiten hain zuzen, eragile independentista bat sortu alegia? Zerk edo nork eragozten dio? Nor ari da interpelatzen bere burua ez bada?

Uste dut inoiz baino ardura handiagoa dugula ezkerreko independentistok plaza publikoan jartzen ditugun eztabaidak edukiei zein formei dagokienez ondo enfokatzeko, azelerazio garai honetan sormen politiko-ideologiko handia beharko baitugu. Batzuk atzeratutako eztabaidak dira, beste batzuk sortuko diren aukera berrien aurrean erabakiak hartzeko beharrezko ditugunak. •

Plaza publikoan jartzen ditugun eztabaidak edukiz zein formaz egoki enfokatzeko ardura dugu ezkerreko independentistok

ARRANTZATIK ERRESKATERA

Getariako arrantzontzi bat prestatu dute Mediterraneora erreskatera joateko

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Getariako arrantza flotako parte izan da «Stella Maris Berria» duela hilabete gutxira arte. Arrantzatik apartatu zutenean, pertsonen erreskaterako prestatzea erabaki zuten Gipuzkoako Itsas Salbamendu Humanitarioko kideek. Abuztu bukaeran abiatzekoa da Libiako kosta parera, errefuxiatuen krisiaren gune beroenetakora.

Itsasoan arrantzan aritu da duela hilabete gutxira arte “Stella Maris Berria”. Getariako arrantzontzien flotako parte izan da, joan den azaroan patroia zendu zen arte. «Familiak arrantzontzia jardueratik apartatzea erabaki

zuen, baita ontzia desegitera eramatea ere. Kasualitate bat tarteko jakin genuen horren berri eta mugitzen hasi ginen, arrantzontzia eskuratzeko zein aukera genituen aztertzen. Armadorearen interesa batetik, eta hasieratik proiektu hau bultzatu duen jende mor-

Irudian, «Aita Mari» ontzia –lehen «Stella Maris Berria» zuen izena– Pasaiaiko kaian. Getariako arrantza flotako ontzia izan da duela gutxira arte eta laster Mediterraneora abiatzekoa da erreskate lanetan aritzeko.
Jon URBEJ FOKU

doa bestetik, azkenean arrantzontzia eskuratzea lortu dugu. Eusko Jaurlaritzak eman digu ontzia erosteko eta bertan beharrezko lanak egiteko dirua –guztira 400.000 euro–. Orain ontzia moldatzen ari gara, itsasoko erreskatera bideratu ahal izateko», hasi da kontatzen Iñigo Gutierrez, Gipuzkoako Itsas Salbamendu Humanitarioko kidea.

Aita Mari itsasgizonaren omenez “Aita Mari” izena jarri diote pertsonen erreskatean arituko den ontziari eta #Maydayterraneo proiektuaren parte izango da. Kanpaina horrek aurten bigarren urtea izango du.

Udako egun betean, eguzkiak gogor jotzen du Pasaiaiko kaian. Langile mordoak dabil

aurrera eta atzera, gora eta behera, lehen arrainak jasotzeko erabiltzen ziren ontziko guneak moldatu eta pertsonen lehendabiziko harrera ahalik eta era duinenean emateko tokiak atonduz. Lan gogorra da; soldatzeko tresnak eta jantziak ez dira beroaren lagun. Baina atzeraka kontaketan ari dira lanean, abuztuaren amaieran abiatu nahi baitute Italia alde-
ra.

MOLDAKETA LANAK

Nola moldatu arrantzontzi bat pertsonen erreskaterako ontzi egokia izan dadin? Gutierrezek barre egiten du, «egun batzuetan ez daukagu ideiarik ere. Egia esan, proiektua ez da erraza izaten ari. Baina borondate handia daukagu eta baita profesionalen laguntza ere. Ontzigintza ingeniariaritzan aritzen direnen laguntza izan dugu. Guk proiektuak zituen beharrak azaldu dizkiegu eta haiek izan dira ontzian zein lan egin behar diren zehaztu dutenak».

Esan bezala, “Stella Maris Berria” arrantzan aritzen zen duela gutxira arte eta horretarako prestatuta zegoen; arrainak biltzeko kutxa handiak zituen, oso ontzi soila zen eta eskifaiaerentzat erosotasun oso oinarritzkoa zuen. Lanerako ontzi bat zen, finean. «Arrantzarako hoditeria eta haztegiak desmuntatu behar izan ditugu. Horien orde, kamaroak jarri ditugu. Jendea egoteko tokiak prestatu ditugu. Sukaldea handitu dugu pixka bat, bertan lan egitea erosoago izan dadin. Erizaintza gela bat ere jarri dugu. Lehen arrantza sotoa zegoen tokian, emakumeak eta haurrak jasotzeko toki bat jarri dugu. Lasai egon daitezten. Eta dutxak eta komuna ere jarri ditugu».



«Arrantzarako hoditeria eta haztegiak desmuntatu behar izan ditugu. Horien orde, kamaroteak jarri eta jendea egoteko tokiak prestatu ditugu»

Erreskate bat egiten dutenean, emakumeak eta haurrak eta gizonezkoak banatu egiten dituzte. «Emakumeak oso egoera larrian etortzen dira, iritsi bitartean sufritzen dituztenak oso latzak izaten direlako. Errefuxiatu migratzailea izatea berez konplikatu da eta, gainera, emakumea bazara, askoz latzagoa. Saharaz azpiko emakumeek, bereziki, etengabeko bortxaketak eta bestelako erasoak jasaten dituzte eta oso egoera emozional zailean iristen dira. Haurrak ere lur jota iristen dira. Ez ditugu inondik inora familiak banatu nahi, baina iritsi berritan gus-tura eta babestuta sentitzen lagundu nahi diegu», kontatu du Gutierrezek. Lehen arrai-nak gordetzen ziren sotoan atonduko dute lehen harrera egiteko toki hori. «Eskailera zabal bat jarriko dugu, eroso samar jaitsi daitezen».

Errefuxiatuen txalupetan, emakumeen eta, batez ere, adin txikikoen kopurua gora egiten ari da. «Batez ere haurrena. Adibidez, gure taldeak erreskatatu dituen azken bi ontzietan erdiak adin txikikoak ziren. Batzuk bakarrik hel-tzen dira, eta, beste batzuk, heldu baten laguntzarekin. Emakumeen kopuruak ere go-ra egin du, nahiz eta oraindik gizonena baino askoz urriagoa izan. Eta azken hilabeteotan errefuxiatu palestinarrek agertzen hasi dira Quiosera iristen ari diren txalupetan».

DUINTASUNA BERRESKURATZEA

Dutxa pare bat eta komun bat ere ari dira prestatzen. «Erreskatatutako pertsonen duintasuna berreskuratzen laguntzea oso garrantzitsua da. Iritsi eta ur botila fresko bat ematen diegu. Guretzat pertsonak di-rela adierazteko modu bat da.

«Emakumeak oso larri etortzen dira, iritsi bitartean sufritu dituztenak gogorrek direlako. Errefuxiatu migratzailea izatea konplikatu da, eta, emakumea bazara, askoz latzagoa»

Lehen unean haien osasun egoera ikusiko da eta beharra dutenak osasun gelara bideratu-tuko ditugu, erizainaren eta medikuaren esku. Lehen har-rera horretan dutxa bat har-tzeko aukera eskaintzea ezin-bestekoa da. Izugarria da errefuxiatuen txalupa horie-tan zer-nolako usaina pilatzen den: pixa, kaka, motorreko ga-solina, kresala... horrek guztiak geruza bat egiten du pertso-nen azalaren gainean eta maiz sekulako erredurak eragiten


Iñigo Gutierrez, Gipuzkoako
Itsas Salbamendu
Humanitarioko kidea.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

ditu azalean. Horregatik ga-rrantzitsua da dutxa bat hartu eta azala garbitu ahal izatea», azaldu du Gutierrezek.

“Stella Maris Berria” ontziak 150 lagun inguru har ditzake behar bezala nabigatzeko. Hor-tik gora, zailagoa izango du itsasoan mugitzea. «150 lagu-netik gora erreskatatuz gero, beste ontzi batzuei laguntza eskatu beharko genieke. Kabi-tu, berez, jende gehiago kabitu daiteke. Adibidez, 300 lagun eduki ditzakegu une batean ontzian, baina pertsona kopu-ru horrekin ezingo genuke na-bigatu. Txosten bat egin dugu hori guztia kalkulatzeko».

Eskifaia 16 pertsonakoa izango da. «Bost profesional izango dira. Espainiako bande-rapean jarriko dugu ontzia eta,

beraz, bertako legea bete be-har dugu. Horren arabera, es-kifaian bost profesional egon-go dira. Kapitaina, lehen mailako ofiziala, makina-bu-rua eta bi marinel, soldatape-an arituko dira. Eskifaiaiko gai-nontzeko kideak boluntarioak izango dira; sei pertsonako erreskate taldea, osasun arloko bi langile –erizaina eta medi-kua– eta sukaldari bat. Horrez gain, misio guztietan kazeta-rientzako bi toki daude gorde-ta. Ez dugu gauza arrarorik egin nahi. Pauso guztiak zo-rrortasunez egin nahi ditugu, legearen arabera, arazorik ez izateko. Egoera asko korapila-tzen ari da eta tentuz ibili be-harra dago. Traba guztiak jarri nahi ditugu erasorik ez jasate-ko, eta, aldi berean, izapide ad-




ministratiboekin arazorik ez dugu izan nahi».

Gutierrezek nabarmendu duenez, misio guztietan izango dira kazetarietako tokiak, garrantzitsua baita gertatzen ari denaren lekukoak izatea. «Ez baduzu ikusgarri egiten, hura ez da existitzen. Adibidez, azken asteotan ‘Open Arms’ ontziak egindako erreskate bat izan da albiste; emakume bat salbatu zuten eta beste emakume baten eta haur baten gorpuak ere topatu zituzten. Egun horietan seguru egoera antzekoak edo dramatikoagoak eman zirela. Ez zegoen erreskateko ontzirik lanean eta ez dakigu zer pasatu zen inguru horretan. Erabat birrinduta eta kasik uraren azpian zegoen errefuxiatu ontzi hori topatu izana egoeraren pista handia da. Alegia, hori errepikatu egin ahal izan da hiru astean zehar, eta ez zegoen inor ez jende horri laguntzeko ezta gertatutakoa kontatzeko ere».

PERTSONA SENTI DAITEZEN

Erreskateko ontzian, batez beste, bi egun inguru ematen dituzte. «Dena ondo joanez gero, erreskatatutako pertsonak bi egunen buruan portuan eta seguru egon beharko lukete. Baina batzuetan egoerak korapilatu egiten dira. Italiak eta Maltak jende hori ez hartzea erabakitzen badute, egonaldi hori gutxienez lau egunera luzatzen da. Egoera asko konplikatu daiteke erabaki politikoak direla medio».

Hasiera batean, beraz, bi eguneko harrera prestatu behar du erreskate taldeak. «Osasun arreta, gutxieneko garbitasuna, ura eta jatekoa, segurtasuna eta duintasuna. Horiek dira hasiera batean



ematen saiatzen garenak. Gu ez goaz karitatea ematera, elkartasuna eskaintzera baizik. Gu bezalako pertsonak dira eta berriz pertsona senti daitezten lan egin behar dugu. Hori da gure helburu nagusia».

Erreskate ontzietan arroz egosia izaten da elikagai nagusia. «Arroz egosia eskaintzen diegu lehen ordu horietan. Hori izaten da dieta nagusia. Kultura guztietan ezaguna da arroz egosia eta denek onartzen dute. Saiatu izan gara bestelako platerak eskaintzen, baina ez dute beti funtzionatzen, kulturalki askotariko jendea da-eta. Arroza, gainera, erraz prestatzen da eta sabela gaizki duenari ere mesede egin diezaioke. Gero fruta ere eskaintzen diegu».

“Aita Mari” abuztuaren amaierarako prestatuta egoitea espero dute. Lehenagorako nahi zuten, baina ontzia moldatzeko lanak atzeratu egin dira. Behin prestatuta, pertsonak uretan erreskatatzera abiatuko da Libiako kostara, Mediterraneoko gune ga-

Goiko irudian, langileak dutzak eta komuna hartuko dituen gunea prestatzen. Alboko orrialdean, beste bi langile eguzki erretan neurriak hartzen. Udan jo eta su aritu dira «Aita Mari» prestatzeko lanetan.
Jon URBEJ FOKU

tazkatsuen errefuxiatuen krisiari dagokionez. Une honetan Europako toki desberdinetatik iritsitako bost ontzi ari dira erreskate lanetan. Horiei elkartuko zaie “Aita Mari”.

Hala ere, ezin da jakin zer gertatuko den eta Itsas Salbamendu Humanitariokoek ere garbi dute: «Edozer gauza gerta daiteke». Italian eta Europan, oro har, giroa oso aztoratuta dago errefuxiatuen inguruan, Matteo Salvini Italiako Barne ministroa eta bere politikak tarteko. «Guk legezko protokolo guztiak segituko ditugu. Lehendabizi, Erromako koordinazio gunera bidali-

Eskifaian hamasei lagun izango dira eta horietatik bost profesionalak, alegia, soldatapekoak: kapitaina, lehen mailako ofiziala, makina-burua eta bi marinel

Gainontzeko partaideak borondatezkoak izango dira: sei pertsona erreskaterako, bi osasun langile –erizaina eta medikua– eta sukaldari bat. Kazetarietako bi toki daude

ko dugu abisua. Orain arte hark koordinatzen zuen erreskate gunea eta bere esanetara gaudela adieraziko diogu. Arautegi eta baldintza guztiak betetzen ditugula garbi utziko diogu, gainera. Hortik aurrera zer pasatu daitekeen? Ba ez dakigu. Salvinik oso ondo daki zer egiten duen eta ez dauka inolako erreparorik. Abiatu duen bidea geldiezina dela dirudi eta horretan segituko du. Egia da, hala ere, Italian erantzuna jasotzen ari dela. Adibidez, Italiako kostazainen almirante batek esan du beren eginbeharra itsasotik jendea erreskatatzea dela, ezin direla pertsonak itsasoan utzi. Eta behin erreskatatuta, ezin direla ez aurrera ez atzera utzi».

Azkenaldian gertatzen ari den fenomeno oso kezagarria da Gutierrezen ustez. Itsasoan pertsonak erreskatatu dituzten merkataritza ontziak blokeatzen ari dira, ez aurrera ez atzera itsasoan uzten, inon porturatzeko baimenik ez dietelako ematen. «Itsasoan zaudenean jitoan dagoen norbait topatuz gero, salbatu egin behar duzu. Hori da araua. Merkataritza ontzi batek errefuxiatuen txalupa bat topatzen badu, laguntza eman behar dio. Baina, lagunduz gero, erraztasunak topatu beharrean trabak topatzen ari dira azkenaldian, askotan itsasoan blokeatuta geratzen direlako. Hori, noski, bere jardun ekonomikoaren kaltetan izaten da, denbora eta dirua galtzen dutelako arazo horiek medio. Hartara, gerta daiteke –eta segur aski gertatzen ari da– merkataritza ontziak beren ibilbideak aldatzea, txalupa horiekin topo ez egiteko. Azkenean, pertsonak salbatzea arazo bat bihurtzen ari da».

Italiako Gobernuak uko egin dio itsasoan erreskateak egiteari. «Itsas erreskatea Libiaren esku utzi du eta frogatuta dago Libiakoa ez dela kostazainen zerbitzu bat, milizia bat baizik. Europako dirua jasotzen dute eta Mediterraneoan sekulako astakeriak egiten ari dira. Denetarik egiten dute, erreskatatzea ez den beste guztia».

HAMABOST EGUNEKO TXANDAK

Esan bezala, abuztuaren 30ean abiatzekoa da «Aita Mari» Pasaiatik. «Gustatuko litzaiaguke lehendabizi Getariatik pasatzea, hango flotakoa baitzen ontzia. Hartara, erakutsi nahi diegu 'Stella Maris Berria' nola moldatu dugun eta azaldu aurrerantzean zein lan egingo duen. Badakigu Getariako arrantzaleak pozik daudela ontziaren norabide berriarekin».

Gero, abendura bitartean behintzat, Mediterraneoan uretan lanean arituko da, hamabost eguneko txandatan. «Hamabost eguneko txandak egoki ikusten ditugu. Ontzian bizitza ez da erraza izango, ez dauka erosotasun handirik eta oso oinarrizkoa da. Fisikoki esperientzia gogorra da eta baita emozionalki ere. 24 ordu guardian egoten gara, alarmak edozein ordutan jo dezakeelako. Erreskateren bat egitea egokitu gero –batzuetan ez baita gertatzen–, suntsitzaila da, oso gogorra. Lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen zara eta egiten duzu. Baina behin erreskatea amaituta, horrek uzten duen aje emozionala oso gogorra da. Horregatik pentsatzen dugu hamabost eguneko txandak neurri egokia direla».

Dagueneko eskifaiaaren talde guztiak osatuta daude, eta ba-

tzuk kanpoan utzi behar izan dituzte. «Borondatezkoak beren opor egunak baliatzen dituzte erreskate ontzira lanera etortzeko. Eta bakoitzak bere bidaia ordaintzen du. Garrantzitsua iruditzen zait hori nabarmen zea, eta horrela izan da Itsas Salbamendu Humanitarioa sortu genuenetik. 200 euroko muga jarri dugu. Hegazkin txartela hori baino garestiagoa bada, proiektuak ordaintzen du aldea. Baina 200 eurora arte, boluntarioak ordaintzen du bere txartela. Gauza sinbolikoa da, baina garrantzitsua gure ustez. Galbache bat jartzeko modu bat da. Benetan konpromiso serioa hartzeko prest dagoen jendea bakarrik onartzen dugu proiektuan. Kontuan izan, gainera, itsasoan egin beharreko erreskatez ari garela eta horretarako prestatuta dagoen jendea behar dugula. Proiektuan erabat inplikaturik dagoen jendea nahi dugu eta hori erakusteko modu bat da norberak bere bidaia ordaintzea. Hortik aurrera, gastu guztiak proiektuaren gain geratzen dira», esan du Gutierrezek.

Horrez gain, bada proiektua ekonomikoki bultzatzeko modua. Batetik, #Mayditerraneo proiektuaren inguruko materiala erosteko aukera dago sarean. Eta, bestetik, #DonaMillas izeneko proiektua jarri dute martxan. «Kalkulatu dugu itsas milia bat nabigatzeko 35 euro behar direla. Hartara, proiektuari bultzada eman nahi diot milia bat edo milia erdi bat eros dezake. Eta hortik aurrera, nahi dituen guztiak. Proiektuan parte hartzeko modu bat da».

Laguntza kanpaina hori nahi baino mantsoagoa doala aitortu du Iñigo Gutierrezek, erre-

fuxiatuen gaia joan-etorrian ibiltzen baita herritarren lehen tasunaren agendan.

ESKUIN MUTURRAREN MEZUA

«Boladaka bezala funtzionatzen dugu. 'Aquarius' ontziarena, adibidez, oso esanguratsua izan zen. Niri asko gogorarazi zidan Aylan haurtxoaren kasua. Bat-batean, jendea oso oso sentsibilizatua dago, eta, egun gutxira, erabat ahazten du gaia. Valentziako portuan 600 kazetari 'Aquarius' ontzia noiz iritsiko zain ikustea tamalgarria iruditu zitzaidan, ez nuen ulertu. Une horretan bertan Itsas Salbamendu Humanitariokoak mila lagun ari ziren uretatik ateratzen. Desoreka hori erabat ilogikoa eta ulertezina da. Une puntualak gertatzen dira eta badirudi jendarrea sentsibilizatua dagoela. Baina une horiez aparte, egunero gertatzen ari den erreali-

tate bat da, etengabekoa. Eta krisi hori apenas existitzen den komunikabideetan, kasu zehatz batzuk salbu».

Gutierrezen iritziz, «krisia oso luzea izaten ari da eta eskuin muturraren mezua abiatzen ari da zabaltzen. Nik nire inguruan ezagutzen dut jende ona, bihotz onekoa, mezu horrekin bat egin duena une batean. Eta nik galdetzen diet: 'pertsona onak bazarete, nola sinistu ditzakezue errefuxiatuen inguruan esaten diren astakeriak?'. Europa mailan zabaltzen ari diren eskuin muturreko mezuak oso kezagarriak iruditzen zaizkit».

Hasiera batean «Aita Mari» ontziaren basea Catanian (Sizilia) jartzeko asmoa zuten. Azken asteotan, baina, korapilatu egin da bertako egoera. «Une honetan ez dakigu basea non egongo den, aukera guztiak aztertzen ari gara».



LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

Aurrera haurtzaroa!

Miren Azkarate
Badiola

Udako iluntze epela, Donostia-ko Parte Zaharreko Plaza Berrian haurrak baloiarekin jolasean. Auzo bizitzaren arnasgune atsegin horretan bortizkeria: Polizia Munizipalak haien jolasean esku hartzen du. Plaza Berrian ezin omen da baloiarekin jolastu!, horretarako omen dago Trinitate plaza! Gainera, kasualitatea, gaur ere haurrei itxita dago Jazzaldirako pribatizatu dutelako. Berriz ere Donostia ezagutzera etorritako turistak pribilegiatuak; egiazko Donostia ezagutzeko aukerarik izango

ez dutenak, tamalez. Eta, axola al dio Donostia bisitatzen duen turistari bertako herritarren bizitzan Udalaren turistifikazio eredia eragiten ari den inpaktuak? Seguru bertako pintxoak, bertako edari eta jakiak, bertako museo eta historia, hondartza, biodibertsitate, ohitura, musika eta bestelako adierazpen folklorikoak deskubritzeko irrikatan dela bidaiaria. Eta bertako egunerokoa? Bertako biztanleak? Bertako haurren barre eta jolasak? Euskarazko kantu eta leloak?

Gustura entzungo nuke bisitari atzerritarraren iritzia, egia esan. Baina, zer diote hurrek haien kale eta plazak “erreserba turistiko” egin izanari buruz, Goia jauna? Zeinentzat da Parte Zaharreko espazio publikoa? Inoiz baino ozenago haurrak eta auzotarrok kalea berreskuratzera! Parte Zaharra bizirik! Aurrera kalean jolasak antolatzearen gisako ekimenak! Aurrera haurrak eta haurtzaroa! Donostiako Parte Zaharraren turistifikaziotik ihes egindako batek... •

Balkoiak eta banderak

Antton Izagirre

Alderdi Popularreko buruzagi hautatu berriak, eskuinaren idearioaren beste ezaugarrien artean, «balkoiak eta banderak» iragarri dizkigu identitate ikur modura. Pablo Casadoren aitaponteko politikoa izan zen Fraga Iribarne hark, «kaleak nireak dira» haren defentsan, Gasteizko Martxoaren 3ko triskantzak eragin zituen gertakizunak ekarri dizkigu gogora. Zer egiteko prest dago oinordekoa, balkoiak eta banderak bere nahierara makurrarazteko? Hitz horien atzean ofentsiba nazionalista espainiarra ira-

garri digulakoan gaude. Beti harritu izan gaitu Aragoi edota Gaztelako hiri nagusienetan, eta ez hain nagusietan, balkoietak espainiar bandera erakustaldiak. Maiz galdetu izan dugu zer behar duten beren izaera eta sentipen espainiarra balkoiak banderez beteta erakusteko. Noiz eta zergatik jarri dituzten ikusita, argi geratu zaigu Kataluniako prozesuarekiko ofentsiban eraikitako balkoiak izan direla. Ez dira identitatea erakusteko zabaldu banderak, gerraren eta aurkaritzaren ikuspegitik besteenak zapuzteko zabaldutakoak baizik.

Euskal herritar eta abertzale modura, geure balkoi loretsuetan euskal nazioaren identitate aldarrien eskasiaren arrazoiak galdetu izan diogu geure buruari. Ongi usteko erantzun koherentea bilatu nahian, haien aldarrikapen baztertzaileari, geure naziotasunaren izaera barneratzailea, inklusiboa, alderatu nahi izan diogu. Iruñeko udaletxeko balkoian ikurrina debekatu dutela jakinda, edota Tuterako udaletxeko balkoitik «Gora Tuterak!» euskaraz aldarrikatze hutsagatik zenbait eskuindarrek erakutsi duten haserrea ikusita, balkoiak ez ote diren lo- rez apaintzeko otu zaigu. •



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Irudikatu

Irudikatu nora doan ez dakizun autobus bat eta zurea ez den hizkuntza batean mintzo diren poliziak ez daukazula badakizun dokumentu bat eskatzen. Irudikatu autobuseko gainerako bidaiarien larruazalak zurearen kolorea nabarmenago egiten duela. Irudikatu hona iristerako igarotako kontrol-gune batean ostu dizkizutela mugikorra eta dirua, eta ez dakizula ze egunetako ze ordutako ze minututan bizi zaren. Irudikatu parean daukazunak inoiz entzun ez duen izen bat daukazula. Irudikatu ingurukoek ezagutzen ez eta sekula bisitatu ez duten herri batetik zatozela, zauden –eta azkar pasa nahiko zenukeen– autobus geltoki honentzat ulertezinak diren hizkuntzak eta ametsak daramatzazula zure poltsiko zulatuetan. Irudikatu begiradak, kazetarien kamerak, hormari begira jarri zaituen polizia saldoa. Eta irudikatu hori dena hemen, Donostian edo Irunen edo Gasteizen edo Euskal Herriko edozein geltokitan.

Egunkarien arabera dozenaka «papergabe» -eta ondorioz izenik, ahotsik eta izaerarik gabeko- geratzen dira egunero gure muga ez omen diren mugetako burokraziaren armiarma sarean trabatuta. Bi estaturena den eta, ondorioz, inorena ez den lur eremu lauso horretan gauez hara-hona eramana aireportuetako malleta galduen gisan. Eta egunkarietan “exodo” hitza irakurri dugu, “inbasio”, “olde”. Eta gure inguru tolerante eta hurbilenean ere segurtasunaren aldeko diskurtsoak zabaldu dira; gure ongizatearen defentsa, gure bizitzeko moduaren defentsa.

Eta «segurtasun» eta «defentsa» hitzak barneratzen hasi nintzen garaiekin oroitu naiz, dena zalanza eta urduritasuna zen gaztaroan nola pentsatzen nuen iritsiko zela egun bat ideia ziurrak izango nituena, bizitzan gehiago mugituko ez nintzen gune batera iritsiko nintzena, «zoriona» edo auskalo ze izenetako lekuren batera. Eta behin baino gehiagotan harrapatu dut nire burua behinola arrazoizkoak ziruditen iritzietan gotortzen, behinola barruak astindu zizkidaten harremanei eusteko alarma, hesi eta segurtasun sistema konplexuenak eraiki eta entzun nahi ez nituen galderei ihes egiten, nirearen kontrako usteak gutxiesten, paperik eskatu gabe nire bizitzara zetozen pertsonei atea ixten. Eta hilabeteetan ontziko urik aldatu gabeko arrainen gisan ito zaizkit usteak eta

itxi usaineko lagunarteetatik begiratzen diot behinola sentitu uste izan nuen eta “zorion” deitu nion barru-astinaldi horri.

Eta gaur, Donostiako Aste Nagusiko lehendabiziko larunbat honetan, nire burua aurkitu dut hemen, portuan, eta pentsatu dut baietz, jaiak izan daitezkeela gure ziurtasun, segurtasun eta bizimodu kontserbadoreenaren indargarri, gure boterea erakusteko gune. Jarrai dezakegula gotortzen, gureak ez direnen usteak gutxiesten eta gure posizioa indartzeko ondokoen zalanztan jartzen. Baina, akaso, munduari aukera bat eman eta gure uste, iritzi eta harremanak egurasteko ere balia ditzakegula festak.

Ez baitago ziurtasunak zalanztan jartzea baino ariketa osasungarriagorik. •



Gure uste, iritzi eta harremanak egurasteko ere balia ditzakegu festak. Jon URBE | FOKU

{ koaderno } **Xabier Izaga**

Ezin gara euren lekuan jarri, ez baitute lekurik

Niri egin didatena ez diote inori egin», esan zuen astelehenean Pablo Casado PPko presidenteak. Ez da zuzena, baina, haren alderdikide eta Madrilgo presidente ohi Cristina Cifuentesi ere oparitu baitzioten master bat. Baina ez, ez zuen horregatik esan, ustezko, balizko maste-rra dela-eta jasaten ari den erasoaz ari zen. Aurreko egunean Gasteizen izan zen, txistu eta oihu artean, Estatu honetan ez dela polizia abusurik egon esate-ko. Jakina, Poliziaren larderiaren biktimarik ez bada-go, ez dago abusurik. Martxoaren 3ko sarraskia ger-tatu zen hirian esan zuen hori. Sanferminetan ere, bere alderdiko presidentetzarako kanpaina egiten ari zela, Iruñean izan zen, baina ez German Rodrí-guezentzat justizia eskatzeko, hain justu, «batasuno-ek» nafarren libertateak eta eskubide demokratiko-ak galarazi nahi dituztela ohartarazteko baizik. Lehe-nago, non eta Altsasun, beste perla bi utzi zituen: «Gora Guardia Zibila!» eta «euskara ez da Nafarroako hizkuntza».

Ez da polizia abusurik izan, gora Guardia Zibila! Elementu horren alderdiak Nafarroako biktimen legea baliogabetzeko eskatu zion

Auzitegi Konstituzionalari eta hark halaxe egin zuen. Izan ere, zertarako nahi dute lege hori, ez bada Esta-tuaren indarren abusurik izan? Beste horrenbeste egin zuen EAEko legeari dagokionez, baina, EAJri es-ker, oraingo Gobernuak kendu egin du aurrekoak ja-rritako helegitea. Hori bai, aldaketa batzuk egitea adostu dute. Ez PSOEk ez EAJk ez dute esan zertan di-ren aldaketa horiek, eta niri burura datorkit Katalu-niako *Estatut* hura garbitu zutenekoa.

Ez nuen Casadoz hitz egiteko asmoa, baina Estatu espainoleko presidentea izan litekeen pertsona izan-da... Hain zuzen, horregatik bete ditut lerrook bera hizpide. Ez presidente espainiarra izan litekeelako, or-

dea, pertsona delako baizik. Halaxe agertu zen joan den astean Algecirasen. Pertsonen ordezkari. Pertsona batek egun batean esan dezake ez dagoela etorkinen-tzako paperik eta hurrengoan etorkin talde bati boste-koa eman, «ni ere pertsona naizelako». Elkartasuna agertuz? Jainkoaren borondatea dela esanez? Edo «ez dut ezer zuen aurka, baina zoazte popatik hartzera» adieraziz?

Zuentzat bostekoa besterik ez dugu, ez dago denen-tzako paperik. Esateko modua da, papera badago-eta. Ez dagoela lekurik esan nahi du. Gu geure lekuan gau-de, eta eurek lekurik ez dutela ulertu behar dute. En-patia apur bat, mesedez, gure lekuan jar daitezela. Guk ez dugu euren lekuan jarri behar, ezin gara jarri, ez dutelako lekurik. Nahiko lan ditugu geure lekuari eusten.

Zuentzat bostekoa besterik ez dugu, ez dago denentzako paperik. Esateko modua da, papera badago-eta. Ez dagoela lekurik esan nahi du. Gu geure lekuan gaude, eta eurek lekurik ez dutela ulertu behar dute

Donald Trumpen estrategia buru ohi Steve Bannon Europara omen dator, hurrengo hauteskunde europa-rrei begira, eskuin muturra batzera. Marine Le Pen, Viktor Orban eta gisako pertsonekin hitz egin du da-goeneko. Ameriketako Estatu Batuen irudi eta antzeko Europa eraikitzea bide da helburua. Europarren lekua babestuko duen Europa eraikitzea. Etorkin izango di-renen lekuak ustiari eta txikituko dituen Europa. Haien lekuak xehatu, bai, txikitu... lekurik gabe utzi arte. Europaraino iristeko ausardia dutenei bostekoa emango diegu, baina jar daitezela gure lekuan, ulertu dezatela ez dutela lekurik.

Badator Bannon. Berandu etorri ere. •



Handitan zer izan nahi zuen galdetzen ziotenean komikigilea edo animatzailea esaten zuen berak. Urteak aurrera joan ahala, ikasketak horretara bideratu zituen eta gaur egun, 29 urteko errenteriarra hainbat filmetako pertsonaiei bizitza emateko aukera izan du. Orain «Snow Queen 4» filmean parte hartzen ari da.

Artistaz beteri-ko coworking batean dabil buru-belarri Jon Gama errenteriarra, etxetik lan egin beharrean giroz aldatzeko. 3D animazio digitala lantzen du, txikitatik gustatu izan zaion lanbidea. Txikitatik oso sormen handikoa izan delako, aukera izan zuenean Batxilergo artistikoa ikastea erabaki zuen. «Komiki txikiak egiten nituen, marrazkiak eta grafitia. Hobbya zena nire lana izan zitekeela ikusi nuen, baina animazio ikasketak oso garestiak dira eskola pribatuetan ematen direlako», kontatu zigun. Hori dela eta, Batxilergoa amaitzean etxekoek ezin zutenez animazio ikasketak ordaindu, diseinu grafikoa eta web orriak egiten ikasteko goi mailako gradu bat egin zuen, eta amaitzean Errenterian bertan hasi zen lanean, webguneak prestatzen. Urte batzuen ostean bazuen soldata egonkor bat eta Internet bidez animazio ikastaro bat egin ahal izan zuen.

«Eskola asko fisikoak badira ere, Internet bidez ikastaro asko eskaintzen dira, jende gehiagogana iristeko gaitasuna dutelako. Nik egin nuen horretan Pixar, Disney zein Blue Sky-ko irakasleak zeuden, eta hori asko interesatzen zitzaidan», aipatu zuen. Era berean, bere kabuz 3D animazioa praktikatzen zuen etxean.

Ekoiztetxe garrantzitsu horietako irakasleak izatean, mi-

laka gauza galdetzeko gogoia sartu zitzaion beraiek bezalako izan nahi zuelako. «Oso jatorrak dira, oinak lurrean dituzte eta gomendioak ematen dituzte», aitortu zuen.

Eskolan handitan zer izan nahi zuen galdetzen ziotenean berak komiki marrazkilaria edo animazio filmak egitea gustatuko litzaiokeela erantzuten zuen. «Nire ametsa pelikula edo telesail bateko kredituetan agertzea zen, eta lortu egin dut. Zure bizitzarekin zer egin nahi duzun baldin badakizu eta helburu horretara bideratzen bazara pixkanaka, esfortzu asko egin gabe lor dezakezu», bota zuen bere pausoak jarraitu nahi dituenari animoak ematen.

Heltzen ari zela konturatu zen bere lagunei jada ez ziztaizkielako marrazki bizidunak gustatzen, baina berari bai. «Egun hobeto ikusita dago, publiko mota askori zuzendutako saioak daudelako; baina lehen, egungo aukerak ez genituenean, ordu zehatz batean kate zehatz bat ikusi behar genuenean, ez zen batere erraza. Konturatu nintzen nire lagunak, 15-16 urtetarik aurrera joeraz aldatu zutela», esan zuen. Baina berari izugarri gustatzen zaizkio marrazkiak. Are gehiago, txikitan ikusten zituen marrazkiak botatzen badituzte nostalgia sentitzen du.

KONTAKTUAK, GARRANTZITSUAK

Errenterian lan egonkor bat zuenez, animazio ikastaroa egin zuenean helburua ez zen



Jon URBE | FOKU

horretan lan egitea, bere hobbya elikatzea baizik. Baina harreman batzuk zituen eta “Olentzero” pelikulan parte hartzea proposatu zioten. «Animazioan lanean hasteko ez zen oso zaila, beraz, hori egitea erabaki nuen, baina denbora librean. Egunero arratsaldeko seiak arte lan egiten banuen, gaueko hamarrak arte filmari eskaintzen nion denbora. Eta asteburuak, osorik Olentzerorentzat. Egunero 12 ordu egiten nituen lan eta oso nekatuta nengoen».

Webguneak egiteko lana eta animazioa uztartzen zituen, egunean 12 ordu lan eginez, baina nekatu egin zen eta animazioan finkatzea erabaki zuen

Bere ametsa Pixar ekoiztetxean lan egitea da, bertan egin baitzuten 3D animaziozko lehen filma, «Toy Story». Egun laugarren zatia egiten ari dira

Errenteriako lana utzi, eta animatzaile bezala postu bat bilatzen hasi zen, eta Las Palmasetik deitu zioten Telerin Familiar buruzko “Cleo eta Cuquin” telesaila egiteko. «Hasieran ideia ez zitzaidan gehiegi gustatu, lehen bazituztelako web saioak Interneten, eta kalitatea ez zelako oso ona, eta gainera, esan zidaten telesailaren kalitatea okerragoa izango zela. Baina azkenean alderantziz gertatu zen; telesailak ordua arte egindako filmek baino kalitate handiagoa izan

zuen», eta horrela, animatu egin zen. Kanaria irletan urtebete eman ostean, orain “Snow Queen” sagako laugarren parte egiten ari da, Euskal Herritik lanean atzerriko enpresa batentzat.

Beraren esanetan, animazioaren mundua oso prekariora da: «Ekoizpen bat amaitzean langabezian gelditzen zara; beraz, oso garrantzitsua da kontaktuak izatea eta bidaiaitzeko aukera izatea. Nik orain ez daukat bidaiaitzeko gogorik, beraz, hemen inguruan begirabil. Ikusi dut Iruñean ‘D’Artacan y los tres mosqueperros’-i buruzko film bat egin nahi dutela eta interesatuta nago, baina oraindik ez dute animaziorako inor kontratatu. Bestalde, Madrilera beste ekoiztetxe batek urte amaieran film bat hasteko intentzioa dauka eta Hollywoodeko kalitatea izango duela dirudi; beraz, bertan parte hartzea gustatuko litzaidake, baina

Madrilera joan beharko nintzateke».

Animazioan lan egiteko jende asko behar da. Beraz, Gama dioenez, balio baduzu hartu egingo zaituzte. «Edozein lanposturako hogeit pertsona elkarrizketatu eta bakarra hartzen dute, baina gure kasuan lan bat egiteko jende asko behar da. ‘Cleo eta Cuquin’ telesaila egiten egon nintzenean hasieran 12 ginen, gero 20 eta azkenean 50. Gainera, lanpostu desberdinak daude: hasiberria, erdikoa eta goi mailakoa».

PROZESUA

3Da orain indarra hartzen ari da animazio tradizionala baino merkeagoa ateratzen delako orokorrean. Tradizionalean marrazten baldin badakizu denetik egin dezakezu: pertsonaien diseinua, bakoitzaren animazioa, hondoak, tindatzea eta pintatzea, nahiz eta normalean lanak banatzen diren.

3Dan ere lanak banatu egiten dira, baina oso zaila da batek dena egin ahal izatea eta horregatik lankideak ezinbestekoak dira: marrazkilariek pertsonaiak diseinatzeko dituzte; beste batek gidoia egiten du; beste batek pelikula eszenaz eszena marrazten du komikia izango balitz bezala; ondoren beste batek pertsonaia digitalki egiten du 3Dan, baina eskultura bat bezalakoa da, ezin da mugitu eta kolore bakarrekola da; hurrengoak kolorea eta testura ematen dio; hurrengo pausoa eskeletoa egiten da gorputzeko artikulazioak zein mugitu ahal izango diren bestelako atalak markatuz; orduan iristen da animatzailearen txanda.

«Mugitu daitekeen pertsonaia dugunez, postura desberdinetan jarritz mugimendua ematen diogu. Pertsonaiaren izaeraren arabera edo gidoiari jarraituz, keinua desberdina izango da. Ez dira berdina eseriko lotsatia edo irekia diren pertsonaiak. Animazioa dugunean, azken ukitua eman behar zaio efektuak edo argiztapena sartuz. Horregatik, ez da derrigorrezkoa marrazten jakitea, baina lagundu egiten du pertsonaiaren mugimenduak naturalagoak izateko», azaldu zigun.

Errenteriarren ametsa, sektore horretan aritzen diren askorena bezala, Pixarren amaitzea. «‘Toy Story’ izan zen 3D animazioan egin den lehen filma, eta Pixarrek egin zuen. Pixarren zuzendariak Disneyn egin nahi zuen lan eta 3Dn lana egin nahi zuela esan zuenean baztertu egin zuten, oso kontserbadoreak zirelako. Bere enpresa sortu eta “Toy Story” egin zuenean sekulako arrakasta izan zuen», dio irribarrez. •

Nagore Belastegi Martin



Juan Carlos RUIZ | FOKU

IKUSMIRA

EZ DIRA AULKI BATEAN ESERITA ZAIN EGONGO

Udako argiaz eta eguzkiaren epelaz gozatzeraz joan eta izoztuta uzten zaituen errealtate krudela parean. Itsasoaren magalean kulunkatzera joan eta edonori bertigoia sortzeko datuak: dispersioak 4.000 lagun bizi hantza hantza gora jartzen du. Euskal Herriko egiatako postala hori da, zuloz betetako etxeak, asfaltian Kantauri itsasoko kresala usaindu ere egiten ez duten herritarrak, beren eskubideekin batera ziega urrunetan lotuta daudenak. Casado, Covite eta enparauak urduri samar ote dauden... ezetz eta ezetz, ez dutela hurbilketarik onartuko. «Gorrotorik gabe, baina hurbilketarik gabe». To, leloa. Horien emozio-

en hiztegian zer ote da gorrotoa? Senideak eta hainbeste herritar, bitartean, arnasari eusten baina itxaropena apal-apal. Oraingoz, hitz gutzi batzuk eta apenas ekintzarik. Tristeena da ez dela bihotz oneko ekintza bat, ez dela karitatea, ez dela espetxe onura bat. Legea da, legea bakarrik eta legea goitik behera. Beren legea; komeni zaien modura erabiltzen duten hori. Hori ez da ez serioa, ez justua, ez legezkoa. Bero zein hotz, senideek borrokan segituko dute, etxean hutsik dagoen aulkia bete arte ez baitira aulki batean eserita zain egongo. Amagoia Mujika Telleria

HERRIGINTZA, SARITUTA

OkupaTU Gasteiz dinamika jaso du Txosnisaria bere urtebetetze borobilean

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Amaitu dira Gasteizko jaiak eta segurutik momentu politak utzi dizkiete hainbati. Beste batzuei, berriz, momentu latzak. Eskuarki emakumezkoen bati. Denon kalterako momentutzat hartu beharrekoak, oraindik. Txosnetara joateko ohitura dutenek horren eta beste kontu askoren kontzientzia hartzeko beharra errazago sumatzeko aukera dute, nonbait, jai giroari apurrik kendu gabe.

Bertan izan gara asteen. Harako bidean, taberna batera sartu gara. Gure aurretik, kuadrilla bateko lagun batek garagardo batzuk eta baso bi ur eskatu ditu. «Botila behar du izan», esan die zerbitzariak. «Tira, botilaxo bi ur», bezeroak. Txosnetan, jendea ogitartekoak jaten hasi da. Haietako batean aurreko tabernako kuadrilla bera dago. Eskatu dituzte ogitartekoak. Edateko, botila bat ardo (gero-geago, beste bat), garagardo bi eta botila bat ur. «Nahi baduzu, aterako dizugu, baina jendeak txorrotakoa edatea nahiago du». «Ederto!», besteak. Txosna guztietan lehen aukera txorrotako ura dutela jakin dugu, plastikoaren erabilera murrizteko. Gainerako edariak edalontzi berrerabilgarrietan zerbitzatzeko dituzte. Horrez gainera, jasotako hondakin organikoe-kin konposta egin dute.

OKUPATU GASTEIZ, SARITUA

Urtero, urtean zehar herrigintzan egindako lanagatik Txosnisaria ematen diote lagun edo kolektibo bati. Izan ere, txosnetan sustatzen dituzten eta nagusi diren balioak ez dira jaietako egunetarako edergarri hutsa. Iaz, AEK-k jaso zuen saria, gasteiztarrei euskara ikaste-

Gasteizko Txosna Batzordeak urtero lagun edo kolektiboren bati ematen dio Txosnisaria, urtean zehar herrigintzan egindako lana eskertzeko. Aurtengoan OkupaTU Gasteiz herri dinamikari eman dio, haren baitako kolektiboen aurtengo urtebetetze borobil eta berezia txosnagunean bertan ere ospatzeko asmoz.



Txosnaguneko giroa, afalorduan. Behean, OkupaTU Gasteiz dinamikaren ordezkariak Txosnisaria jasotzen. Raul BOGAJO - Endika PORTILLO | FOKU



ko aukera eskaintzeagatik eta txosna giroa euskalduntzen egin duen lanagatik. Euskaraldiak bere lekua izan du aurtengo txosnagunean. Euskara da, hain zuzen, bertako jai eredua- ren ezaugarri nagusietako bat, feminismoa, parte hartzea eta kolektibismoarekin batera. Aurreko urteetan, besteak beste, Martxoak 3 Elkarte, Blanki Antepara, Gora Gasteiz eta Erreka-leor Bizirik proiektuek jaso dute Txosnisaria. Aurtengoan, OkupaTU Gasteiz herri dinamikari eman diote, hirian, autogestioa oinarri, egiten duen lana eskertzeko.

Hilabete batzuk baino ez dituzte herri dinamika horrek; hala ere, haren urtebetetzea dela esan liteke, «urtebetetze borobila». Eta aniztuna. Zehazki, urtarilean aurkeztu zuten okupazioa eta elkartasuna aldatetarako tresna gisa aldarrikatu eta gauzatzen ahalegintzen den OkupaTU Gasteiz. Dinamikan parte hartzen dutenetan bateranoena Hala Bedi irratia da, aurtengo 35. urtebetetzea. Gaztetxea, beti bezain gazte badirau ere, urteetan aurrera doa; maiatzean bere 30. urteko ibilbidea laburbiltzen duen liburua aurkeztu zuen. Hamar urte bete ditu Auzolana pilotalekuak, Gasteizko Alde Zaharreko bizilagunen beste autogestio eredu bat. Azkenik, Erreka-leor Bizirik proiektuak bost urte daramatza beste bizi eredu bat posible dela erakusten.

Txosnisaria, beraz, kolektibo horien lanaren aitortza ez ezik, urtebetetze laukoitz horretan egindako oparia ere bada, eta Gasteiz hoberantz aldatzeko lanean jarraitzeko bizigarria. Zorionak, beraz, OkupaTU Gasteiz ekimenari, zorionak herrigintzari eta horren adibide den txosnaguneari.



Olatz Arregi Uriarte

UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakaslea eta ikertzailea

#NiEreBai teknologia alorrean

Googlek James Damore langilea kaleratu zuen 2017. urtean. Arrazoia? Damorek berak zabaldutako txostena emakumeen inguruan. Bertan esaten zuen emakumeak biologikoki ez geundela gizonezkoak bezain ondo presatuta ingeniariaritz lanetarako, emakumeek nahiago genituela arte edo gizarte arloko lanak, eta errazago jotzen genuela sentimenduetara edo estetikara ideietara baino.

“Communications of the ACM” aldizkariaren maiatzeko zenbakian [<https://cacm.acm.org/magazines/2018/5/>], Moshe Y. Vardik, informatika arloan dagoen genero desoreka ulertzeko, emakumeek informatikaren historian jokaturako papera aztertzen du. Gure inguruan eskatzen badugu emakume informatikari baten izena emateko, askok ez lukete jakingo zer erantzun, gutxi hitz egin baita haiei buruz.

Ada Lovelace eta Grace Hopper dira ezagunenetakoak. Charles Babbage matematikari britaniarrarekin elkarlanean aritu zen Ada Lovelace. Baggagek “makina analitikoa” izeneko lehenengo ordenagailuaren ideia garatu zuen, eta Adak horretan lagundu zion makinari buruzko deskribapena egin, besteak beste. Gainera, lehenengo programazio-lengoaia asmatu zuen, gerora (mende bat pasa ondoren) bere izena hartu zuena (Ada lengoaia). Grace Hopper, berriz, Mark I ordenagailuaren lehenengotako programatzailea izan zen; horrez gain, COBOL programazio-lengoiaren garapenean ere paper garrantzitsua jokatu zuen.

Baina bi emakume horiek ez dira bakarrik, badira adibide asko emakumeen papera informatika alorrean agerian uzten dutenak, adibidez, jakina da zazpi emakume izan zirela helburu orokorreko lehenengo konputagailua (ENIAC izeneko) programatzen aritu zirenak. Konputagailu elektronikoak hasi aurretik, kalkuluak egitea pertsonen/gizakien lana zen, eta zehaztasun eta pazientzia handiko lana gainera. Lan hori, kodeen deszifratze-lana bezalaxe, emakumeen esku zegoen gehienetan, berriki, hainbat liburu eta filmetan ikusi den moduan.

Zer gertatu da orduan, gaur egun horrelako desoreka egoteko emakumezkoen eta gizonezkoen artean informatikaren edo teknologiaren alorrean?

Otsailean, Emily Chang kazetariak idatzitako “Brotopia” [<http://www.brotopiabook.com/>] izeneko liburua argitaratu zen. Bertan, beste gauza askoren artean, Silicon Valleyn (goi mailako teknologia ekoizten duten nazioarteko enpresa handienak eta milaka enpresa berri kokatuta dauden bailara) dagoen sexismoa uzten du agerian. Liburuan zehar, tek-




nologia enpresa handiek egiten dituzten festen berri ematen du, parte hartu izan duten protagonistak elkarrizketatuta. Festa horietan, liburuaren arabera, sexu-harreman irekiak ohikoak dira eta droga desinhibitzaileak kontsumitzen dira askotan. Emily Changen arabera, arazoa da sexu-harreman horiek emakume askorentzat bahe bihurtzen direla finantzazioa edota kontratuak lortzeko. Horrez gain, kazetariak dio inbertsoreek jacuzzietan egiten dituztela hitzorduak edota *striptease* lokaletan elkartzen direla gizonezko kideekin negozioak egiteko. Liburuko elkarrizketa horietako batean, konpainia handi bateko inbertsore batek dio gizonezko asko ikusi dituela hainbat emakumeri itxaropen faltsuak ematen haiekin oheratzeko.

Pentsa daiteke hori Silicon Valleyn soilik gertatzen dela, baina Moshe Y. Vardik bere artikuluan dio #NiEreBai mugimenduak argi utzi zuela mundu akademikoan ere emakumeekiko etsai-giroa egon daitekeela. ACMko konputagailuen arkitektura taldeko blogean [ACM SIGARCH, <https://www.sigarch.org/>], Kathryn McKinleyk, “Guri gertatzen zaiguna ez zaio zuetako gehiengoari gertatzen” izenburupean [<https://www.sigarch.org/what-happens-to-us-does-not-happen-to-most-of-you>], konputagailuen arkitekturaren komunitatean, mundu akademikoan, emakumeek jasaten dituzten jazarpen eta jarrera sexisten berri ematen du. Idazleak, berari gertatutakoez gain, beste lankide edo ezagunei gertatutakoak kontatzen ditu. Pasarte asko aipatzen ditu blogean, besteak beste, honako hauek: bera haurdun geratu zenean, lankide batek ea lana utzi behar zuen galdetu zion; beste behin, Microsofteko zuzendari batek esan zion kontratatuta zegoela emakumea zelako; askotan, ia urtero, gizonezkoren batek galdetzen dio ea idazkaria den; eta konferentzietan, bere gelan sartzea eskatu izan diote behin baino gehiagotan. Horrelakoak ez zaizkio bakarrik berari gertatu, beste lankideen esperientziak ere antzekoak dira.

Beraz, esan daiteke, informatika alorrean, gizarteko beste hainbat eremutan bezala, emakumeok eta gizonezkoak ez gaudela berdintasunean. Eta emakumeak alor horretan gutxiengoa izatea ez dela bakarrik ez dugulako mundu horretan sartu nahi, gutxietsiak sentiarazten gaituztelako baizik. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSE BRUNET. KUTXATEKA. MUNOA FUNTSA

XIX. MENDEKO LANGILEAK, ANTIGUAKO BOTILA FABRIKAN

1876ko gerra karlistaren amaieran, Brunet anaiek beirazko botila fabrika bat eraiki zuten Donostiako Antigua auzoan. Beste negozio batzuk ere bazituzten; haietako bat, sagardo fabrika bat. Lursailaren maila jasotzeko, harea, lurra eta harriak eraman zituzten Ondarretako hondartzatik. Horretarako, fabrikaraino iristen zen trenbide bat jarri zuten. "La ilustración española y americana" aldizkariak, «ardo eta ga-seosetarako Brunet jaunen botila fabrika» horren berri eman zuen. 1881ean, "Gaceta Industrial" aldizkariaren arabera, 80 langile zituen fabrikak eta 4.000 botila ekoizten zituzten eguneko. Urte horretan bertan, "El Urumea" egunkariak kontatu zuen fabrika horretan lan egiten zuten 80 langileetatik 45 atzerritarrak zirela, frantziarrak eta alemaniarak. Fabrikaren jarduerak ia 10 urtean iraun zuen. Zenbait urte geroago, lursail hartan "El León" garagardo fabrika eraikiko zuten. Artikulua ilustratzen duen irudia XIX. mendeko 70eko hamarkadaren amaieran egin zuen Jose Brunet enpresaburu eta argazkizaleak. Bertan fabrikako langile batzuk ageri dira, botilak banaketako gurdi batean kargatzen. Argazkian ikusten den ehundura albumina-paperaren gainean egindako positibatuaren ondorio da. Kolodioi hezean egindako negatibo batetik abiatutako ukipen bidezko prozesatze prozedura hori, XIX. mendeko bigarren erdiko argazkilariek erabiltzen zuten.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*



GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

